

Kolaborazionismoa



SONIA GONZÁLEZ
IDAZLEA ETA ABAR



ANTTON OLARIAGA

Modou Khadim Sow dauka izena. 50 urte. Euskal herritarra zen, Ribaforadako auzokidea. Maiztzerara arte, behintzat. Harik eta espainiar poliziak, alkatearen gezur eta engainua tarteko, hartu eta Senegalera bota arte.

Udala laster desenkusatu zen ohar baten bitartez, “egunero euren auzokideen ongizatearen alde lan egiten dutela” esanik. Denok geure baitan bada-kiguna azalarazi zuen: Modou ez zen *benetako* herrikidea, ez zen auzokide-*auzokidea*. Areago, udalarentzat izenik ere ez dauka, “senegaldar bat” baino ez da euren azalpenetan. Beste beltz bat besterik ez.

Inork ez dio alkate jaunari eskatu protesta ekintzarik egiteko, udaleko sarrreran kateatzeko edo bere burua *bonzo* erara erretzeko. Bere papera ez zen hori, baizik eta bere herrikidea babestea, bere egoeraz kezkatzea eta laguntza eskaintzea. Edo, hori berarentzat gehiegizkoa balitz, edozein auzokide zuriren kasuan seguruenik egingo zukeen berbera egitea: “Zeuek topatu” erantzun. Horren orde, ekintza nardagarria aukeratu zuen *motu proprio*. Eta horixe da aurpegiratzen zaiona, kolaborazionismo horren aktiboa jokatu duen lehenbiziko alkatea izatea eta he-

rritar guztiek (baita zuriek ere) instituzio gertuenarekin daukaten konfiantza apurtzea. Hori marka hori!

“Kolaborazionismo” esan eta Vichy erregimena datorkigu gogora ezinbestean. Pétainek irratiz alemaniarrekin kolaboratzera dei egin zueneko diskurtso-tik ei datorkigu terminoa. Azkenaldion sasoi hura berrirakurtzen ari dira Frantziako Errepublikan, De Gaullek hasitako mitoa barne: frantziarrek eta soilik frantziarrek salbatu zuten Frantzia; kolaborazionistak “miserable apur batzuk” baino ez ziren izan; benetako Frantziak ez zuen hartan zerikusirik izan. Horrela, benetako frantsesak lasai egon ahal izan ziren ahanztura kolektiboaren babesean, lehenago ere egon ziren bezala, jo puntuan juduak, ijitoak, komunistak edota errepublikar espainolak zeuden bitartean, hau da, auzokide edo herritar osoak ez ziren haiek.

Sow jaunak aurrekariak dituela azaldu du udalak. Zehaztu barik. Ogi bat lapurtzetik masa hiltzailea izaterainoko aukera guztiak mahai gainean. Baina FBI edo CIArekin kolaboratzen ari den tele-sailetako gizon ausartaren irudia mila zatitan kraskatu da leporatzen zaiona salmenta ilegala dela jakitean. Ekintza gutziz arriskutsua eta pertsona bat bere

etxetik botatzeko arrazoi nahikoa, antza. Ikustekoa izango litzateke idatzizko udal zitazio bat, hau da, dokumentu ofiziala izan litekeen zerbait, faltsukeriaz erabiltzeak ea aurrekariak ekar lezakeen.

Legea bete beharra ditzosozko mantra sakrosantua erabili du udalak. Gezurra. Ezein legek ez du horretara derrigortzen. Baina legeaz ari garela, gogoratuko dugu Estrasburgok Espainiako Estatua kondenatua duela aurrekariak arrazoi bakartzat erabiltzeagatik inor kanporatzerakoan. Areago, Europako Justizia Epaitegiak Tuterako bizilagun baten kanporaketa eten zuen arrazoi berberengatik. Modouk defentsa esku-biderik ere ez du izan. Ez du axola, beste beltz bat besterik ez da.

Helduko da eguna Europak migranteen genozidioaren eta eskubide urraketa masiboaren berrirakurketa egingo duena. Euskal Herrian ere geure partea egin beharko dugu. Ordurako oso berandu izango da, dagoeneko berandu izan badelako. Batek baino gehiagok goi karguetan eta urrun dauden miserable gutxi batzuk seinalatuko ditu, benetako herritarrak lasai egon daitezten. Izkiriatu-rik gera dadin ordukotz: miserableak baliteke, baina ez horren gutxi eta ez horren urrun. ●